

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3.MAILA
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	BIOLOGIA-GEOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	Zientziarako konpetentzia		
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Matematikarako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	BERTA GARCÍA ITSASO GONZALEZ	ikasturtea: <i>curso:</i>	2022-2023

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

konpetentzia espezifikoak <i>competencias específicas</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Informazioa identifikatzea, lokalizatzea eta hautatzea, bere egiazkotasuna egiaztatuz, jarrera kritikoz antolatuz eta baloratuz, zientzia biologiko eta geologikoekin lotutako galderak ebazteko.	1.1. Biologia eta Geologia irakasgaiaren jakintzekin lotutako gaiak ebaztea, informazioa lokalizatuz, hautatuz eta antolatuz, hainbat iturri analogiko eta digital zuzen erabiliz eta aipatuz. 1.2. Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasizientzietatik, gezurretatik, konspirazio-teorietatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta mezu

<p>2. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruz argudiatzea, hainbat formatu erabiliz eta hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala aitortuz, zientzia biologiko eta geologikoen kontzeptuak eta prozesuak aztertzeke.</p> <p>3. Ikerketa-proiektuak planifikatzea eta garatzea, zientziaren berezko metodologiaren urratsei jarraituz eta, beharrezkoa denean, kooperatuz, zientzia geologiko eta biologikoekin zerikusia duten alderdiak ikertzeke.</p>	<p>horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz.</p> <p>2.1 Biologia eta Geologia jakintzekin lotutako kontzeptuak definitzea, eta, fenomenoak eta prozesuak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (eredu grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, weborriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.</p> <p>2.2 Biologia eta Geologia irakasgaiaren jakintzekin lotutako informazioa argi eta garbi komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).</p> <p>2.3 Fenomeno biologikoak eta geologikoak aztertzea eta azaltzea, eta ereduaren eta diagramen bidez adieraztea, tresna analogiko eta digitalak erabiliz.</p> <p>3.1 Erantzun edo kontrastatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz, fenomeno biologikoak eta/edo geologikoak azaltzen saiatuz eta horiei buruzko iragarpenak eginez.</p> <p>3.2 Esperimentazioa, datu-bilketa eta fenomeno biologiko eta geologikoen analisia diseinatzea, galdera zehatzei erantzutea eta planteatutako hipotesi bat kontrastatzea ahalbidetuz.</p> <p>3.3 Fenomeno biologiko eta geologikoen buruzko esperimenduak egitea eta datu kuantitatiboak edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital edo teknika egokiak zuzen erabiliz.</p> <p>3.4 Ikerketa-proiektuan lortutako emaitzak interpretatzea, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz.</p> <p>3.5 Proiektu zientifiko baten barruan kooperatzea, eginkizun zehatz bat arduraz hartuz, beharrezkoa denean espazio birtualak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.</p> <p>3.6 Esperimentazioaren eta eremuaren behaketaren bidez lortutako informazioa eta</p>
---	--

<p>4. Arrazoitzea eta/edo pentsamendu konputazionala erabiltzea, erantzunak eta soluzioak kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa balitz, problemak ebazteko edo biologiarekin eta geologiarekin lotutako eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko.</p> <p>5. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, biologiaren eta Lurraren zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorrarekin bateragarriak diren eta osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.</p>	<p>ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).</p> <p>3.7 Zientziak gizarteari egiten dion ekarpena eta zientzian diharduten pertsonen lana baloratzea, emakumeen zeregina nabarmenduz eta ikerketa etengabe eboluzionatzen ari den lan kolektibo eta diziplinarteko gisa ulertuz.</p> <p>4.1 Problema ebaztea eta prozesu biologiko edo geologikoak azaltzea, ezagutzak, datuak eta informazioa, arrazoibide logikoa, pentsamendu konputazionala edo baliabide digitalak erabiliz.</p> <p>4.2 Fenomeno biologiko eta geologikoei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, ezagutza eta irizpide zientifikoak erabiliz eta, beharrezkoa denean, berriz formulatuz.</p> <p>5.1. Zenbait ekintzak ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzia biologiko eta geologikoen oinarriak aplikatuz.</p> <p>5.2. Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, ingurune izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkorren eta bizikaltatearen garrantziaz argudiatzea, oinarri eta irizpide zientifikoak erabiliz.</p> <p>5.3. Ingurune hurbilean ohitura jasagarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak modu kritikoa aztertuz eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.</p> <p>5.4. Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higieena, gorputz-jarrera, jarduera fisikoa, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...), jarrera kritikoa erakutsiz eta fisiologiaren funtsetan oinarrituz.</p>
--	---

<p>6. Paisaia jakin bateko elementuak aztertzea, geozientzien ezagutzak erabiliz,erliebearen historia eta dinamika azaltzeko eta egon daitezkeen arrisku naturalak identifikatzeko.</p>	<p>6.1. Erliebe baten historia geologikoa ondorioztatzea eta azaltzea, haren elementu garrantzitsuenak identifikatuz eta arrazoiketa eta oinarritzko printzipio geologikoak erabiliz (horizontaltasuna, gainjartzea, aktualismoa, neokatastrofismoa, ebaketa...).</p> <p>6.2. Arrisku naturalak identifikatzeko erabiltzen diren teknika eta tresna berritzaileak ezagutzea, ikerketak eguneroko eta etorkizuneko bizitzan duen garrantziaz hausnartuz eta argudiatuz.</p>
---	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

<ul style="list-style-type: none"> - 1. unitate didaktikoa: Giza-gorputzaren antolaketa - Zelula, izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitate den aldetik. Zelularen teoria eta biologian duen garrantzia. - Animalia- eta landare-zelula prokariotikoen eta eukariotikoen oinarritzko ezaugarriak. - Materia bizidunaren antolaketa-mailak. - Mikroorganismoak, animalia-zelulak eta landare-zelulen irudietan organuluak identifikatzea, ehun-mota desberdinak mikroskopio optikoarekin eta digitalarekin aztertzea. - 2. unitate didaktikoa: Elikadura eta osasuna Talde-proiektuaren bidez garatzen da. - Giza nutrizioa: elikagaiak eta mantenugaiak. - Osasun-ohitura osasungarriak: dieta orekatuak eta elikagaien segurtasuna. Elikadura-portaeren asaldurak. Komunikabideen eragina osasunaren, gorputz-irudiaren eta modaren kontzeptuen gain. - 3. unitate didaktikoa: Nutrizioa: Digestio-aparatua eta arnas-aparatua - Nutrizio-prozesuan parte hartzen duten sistemen eta aparatuen anatomia eta fisiologia: digestioa eta arnasketa. - Nutrizio-prozesuan parte hartzen duten sistemen eta aparatuen asaldura eta gaixotasun ohikoenak. Higienea, prebentzioa, bizimodu osasungarriak. - 4. unitate didaktikoa: Nutrizioa: Zirkulazio-aparatua eta iraitz-aparatua - Nutrizio-prozesuan parte hartzen duten sistemen eta aparatuen anatomia eta fisiologia: zirkulazioa eta iraitzeta. - Nutrizio-prozesuan parte hartzen duten sistemen eta aparatuen asaldura eta gaixotasun ohikoenak. Higienea, prebentzioa, bizimodu osasungarriak. - 5. unitate didaktikoa: Harremana: nerbio-sistema eta sistema endokrinoa - Koordinazioa eta nerbio-sistema: antolaketa eta funtzioa. - Sistema endokrinoa: guruin endokrinoak eta haien funtzionamendua. Asaldura nagusiak. - Mendekotasuna sortzen duten substantziak: tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk.

Haiei lotutako arazoak.

- 6. unitate didaktikoa: **Harremana: zentzumenak eta lokomozio-aparatua**

- Pertzepzioa; zentzumen-organoak; zentzumen-organoen zaintza eta higiena.

- Lokomozio-aparatua. Ohiko lesioak eta haien prebentzioa.

1. arazo-egoera garatzen du.

- 7. unitate didaktikoa: **Ugalketa eta sexualitatea**

- Giza ugalketa. Gizonaren eta emakumearen ugaltze-aparatuak.

- Hilekoa, ziklo menstruala. Ernalketa, haurdunaldia eta erditzea. Giza ugalketako teknika berriak.

- Sexu-osasuna eta -higiena. Metodo antikontzeptiboen azterketa. Sexu-transmisioko gaixotasunak.

- Gizakiaren sexu-erantzuna: afektibitatea, sentsibilitatea eta komunikazioa.

- Gizakiaren sexu eta sentimenduen bereizketak eragiten dituen desirak eta interesak kontuan hartzen dituen harremanen eta sexu-jokabidearen garapena.

- 8. unitate didaktikoa: **Erlieba eta kanpo-prozesu geologikoak**

- Lurraren erliebearen modelatzea baldintzatzen duten faktoreak. Kanpoko eragileak eta prozesuak: meteorizazioa, higadura, garraioa eta sedimentazioa. Lurraren kanpoenergiarekin duten lotura.

- Azaleko urak eta erlieba modelatzea. Forma bereizgarriak. Itsasoaren ekintza geologikoa.

- Glaziarren ekintza geologikoa. Higadura motak eta metaketa.

- Modelatu karstikoa. Lurpeko urak, haren zirkulazioa eta ustiaketa.

- Haizea eta haren ekintza geologikoa.

- Izaki bizidunen ekintza geologikoa. Giza espeziea eragile geologiko moduan.

- Euskal Herriko paisaia bereizgarriak, erlieba modelatzearen ondoriozkoak.

- 9. unitate didaktikoa: **Lurraren barne-dinamika**

- Lurraren barne-egitura.

- Lur-erliebearen barne-geodinamikaren agerpenak: sumendietako erupzioak eta lurrikarak.

- Arrisku bolkanikoa eta arrisku sismikoa. Aurreikustearen eta prebentzioaren garrantzia.

- Lurreko jarduera sismikoaren eta jarduera bolkanikoaren banaketaren eta barne-dinamikaren arteko lotura.

2. arazo-egoera garatzen du.

- Ekosistemen desoreka eragiten duten faktoreak. Ekosistemen gaineko mehatxuak.

Ingurumena kontserbatzen laguntzen duten ekintzak.

- Lurzorua eta haren osagaiak. Lurzorua garrantzia.

- Giza ekintzak ekosistemetan duen eraginaren balioespina: autonomia-erkidegoko naturagune babestuak.

- 1. ikas egoerak: Nola hobetuko nuke nire dieta?

Testuingurua: Medikua engana joan zara digestio arazoak dituzulako. Medikua erabaki du dieta berezia jarri behar dizula.

Arazoa: Medikua dieta orekatu bati jarraitzeko irizpideak eman dizkizu baina zuk sortu behar duzu eguneroko menua.

Xedea: Dieta orekaturako egokienak diren elikagaiak bilatu.

Ataza: Dieta orekatu baterako menua sortzea.

- 2. ikas egoera: Nondik datoz umeak?

Testuingurua: gaur egun, umeak izateko prozesu biologikoa teknika zientifiko berrien bidez lagun daitezke, amatasun eta aitatasuneredu berriekin bat egiteko; hala ere, ugalketa-aparatuen anatomia eta fisiologia ondo ezagutu behar da horiek ulertzeko. Gainera, bizitza-sexual zoriontsu eta osasungarria izateko beharrezkoa da sexua eta sexualitatea bereiztea eta norbere zein gainerakoen hautuak ulertu eta errespetatzea.

Arazoa: Zergatik dago horrenbeste biki?

Xedea: giza-ugalketaren atal eta mekanismoak ezagutzea eta sexualitatea naturaltasun eta arduraz bizitzea.

Ataza: Komiki bat prestatu, Osakidetzako lagundutako-ernalkuntza kontsulta bat erakusten duena (dagozkion azalpen personal zein biologikoak jaso behar ditu).

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Lerro metodologiko hauetan oinarrituko gara:

- Ikasteko metodoa aktiboa da, horrek ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala izatea eskatzen du. Ikasleak bere kabuz “ikasten ikasteko” gai izan behar du, baita azalpen- eta instrukzio-metodoaren bidez ikasteko ere.
- Ikasleen ezagutzetatik abiatuko gara, beraien interesak kontuan hartuz, ezagutza berriak jasotzeko eta ikasitakoa aplikatzen ikasteko, horretarako, irakaslearen azalpenen, liburuaren eta baliabide digitalen laguntza izango dugu.
- Eguneroko bizitzako arazoak planteatuko ditugu, eta ikasitako edukiak eta jakintzak erabiliz eta mobilizatuz, horiei konponbidea aurkituko diegu, horretarako, batzuetan banaka eta beste batzuetan taldeka lan eginez.
- Ikasleak ikaste-jarduerak era autonomo batean esperimentera ditzan bultzatzen da eta irakaslea prozesuaren laguntzailea izango da.
- Ikerlanak egingo ditugu, ikaslearen parte-hartzea eta autonomia sustatuz, ikasleek informazioa bilatu, aztertu, hautatu, barneratu eta aditzera eman dezaten, horretarako, baliabide informatikoen laguntza izango dugu.
- Taldeko lanak egingo ditugu, ikasleek lankidetzan lan egiten ikas dezaten, taldean dituen betebeharrak betez, lankideen ekarpenak balioztatuz, besteen ideiak errespetatuz eta eztabaida balore positibotzat hartuz.
- Ikasleen jakin-mina pizteko jarduerak planteatuko dira, parte-hartzea bultzatzeko eta eskola eguneroko kanpoko bizitzarekin uztartzeko, horretarako, institutuko ortua ere erabiliko dugu, barazkiak eta dieta lotuz.
- Kontzentrazioa, motibazioa eta portaera egokia bultzatuko da, lan-giro positiboa lortzeko asmoz. Giro horrek berak sortutako “feed-back” efektuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua indartzen lagundu dezan.
- Laborategiko praktikak egingo ditugu, animalien disezioak eginez, gizakiaren anatomia eta fisiologiarekin analogiak eginez, giza-gorputza ulertzeko eta hobeto

ezagutzeko.

– Ikasgelara eramaten diren materialak eta sortutako ikas-egoerak Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraituko diete, pertsona guztiek hezkuntza-arrakasta lortu dezaten. Horretarako Berritzeguneko dagokion aholkulariak eta ikastetxeko orientabide zerbitzuak ezarritako hezkuntza-irizpideak aintzat hartuko dira ikasgaiaren antolaketan zein proba edo azterketen diseinu eta balorazioan, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleek helburu didaktikoak eskura ditzaten.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

- Testuliburua: Zubia-Santillana
- Mintegian egindako material digitala (Google Site)
- Laborategiko materiala
- Material informatikoak: liburu digitala eta baliabide digitalak.
- Baliabide grafikoak: argazkiak, modelo anatomikoak, infografiak, aldizkarietako artikuluak...
- Ikus-entzuteko baliabideak: bideoak...
- Irakaslearen ahozko azalpenak eta power-point aurkezpenak.
- Eztabaidak eta elkarrizketak
- Egunkarietako albisteen analisia
- Dokumentalak eta pelikulak ikustea
- Simulazioak egitea
- Laborategiko praktikak (disekzioak)
- Praktiketako datu bilketa eta txostenak egitea.
- Egoera errealetara hurbilduko gaituzten problemak planteatzea eta ebaztea.
- Web orrietatik informazioa jaso
- Kontzeptu-taulak egitea
- Bideo digital bidezko aurkezpenak egitea.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>Proba idatziak: ebaluazio bakoitzean, gutxienez bi proba izango dira. Edukien sakontasuna eta egokitasuna, hizkuntzaren erabilera egokia, klasean landutako hiztegi teknikoak eta edukiak aurkezteko eta edukiak aurkezteko egitura eta loturak balioetsiko dira.</p> <p>- Eguneroko lanaren behaketa: kontuan izango dira interesa, esfortzua, klaseko jarrera egokia eta errespetuzkoa (bai ikasgaiarekiko, irakaslearekiko, zein ikaskidearekiko), lan ohiturak, parte hartzea, ekarpenak egitea, puntualtasuna eta materiala ekartzea.</p> <p>- Lan koadernoak: antolaketa, osotasuna, jarduerak egin eta zuzendu diren, aurkezpena eta txukuntasuna baloratuko dira. Koadernoak eguneratuta izatea baloratuko da.</p> <p>- Banakako eta talde lanak (Drivetik): jarraibideak betetzea, hiztegi egokia erabiltzea, zuzentasuna eta egokitasuna, originaltasuna eta aurkezpen aproposa baloratuko dira. Lanak epean entregatu behar dira.</p> <p>EGOKITZAPENAK: Ikasleen berezitasunen arabera (Curriculumaren Norbanako Egokitzapenak, atzeritik etorri berriak diren ikasleak, etab.) proba idatziak ez dira guztiz berdinak izango, beharren arabera egokitutakoak izango dira.</p>	<p>FROGA IDATZIAK: 7/10 puntu (notaren % 70a): azterketak, testak....</p> <p>Atal honetan gutxienez 4/10 lortu beharko da beste atalekin ebaluazioaren batez bestekoa egiteko.</p> <p>LANA: 2/10 puntu (notaren %20a).</p> <p>Koadernoak, etxerako lanaren inguruko behaketak, ahoz zein idatzizko azalpenak, bakarka edo taldeka egindako txostenak, classroometik egindako lana. Ariketa guztiak eguneratuta eta zuzenduta egon behar dira.</p> <p>JARRERA: 1/ 10 puntu (notaren %10a)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Klasean adi egotea eta jarrera parte hartzailea. • Gaiekiko interesa, puntualitatea • Materiala ekartzea • Ikaskideak eta irakasleak errespetatzea, baita irizidatzen desberdinaz. • Euskararen erabilera ikasleen artean, irakaslearenganaz zuzentzerakoan, lanak aurkezterakoan . <p>-Ebaluaketa berreskuratzeko gaintitu gabeko atala baino ez dute egin beharko. Bi azterketa edo proba idatzi gaintitu gabe egotean ebaluaketa gaintitu gabe geldituko da.</p> <p>-Ebaluazioa gaintitu ahal izateko ezinbestekoa da froga idatzietan gutxienez 4 /10 puntu izatea. Kasu horretan bakarrik egingo da hiru atalen batura (froga idatziak , lana eta jarrera)</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Epez kanpo EZ da lanik jasoko. - Proba edota lanetan kopiazen harrapatuz gero, proba edo lan hori ez da zuzenduko, bere kalifikazioa 0 izango delarik.
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Beharrezkoa balitz idatzizko frogetan berreskurapen froga bat egingo da landutako kontzeptuetan oinarriturik.</p> <p>Lan osagarriak egingo dira beharrezkoak suertatzen direnean (lan, proiektu edo antzekoak, gelako jarrera eta lana ez direnean egokiak).</p> <p>JOKABIDE DESEGOKIEN ONDORIOAK</p> <p>Ikasleek, ikasgai honetan jokabide desegokiak izateak, berezko ondorioak izateaz gain, ikasgai honekin lotutako jarduera osagarrietan parte hartzeko aukeran ere ondorioak izango ditu.</p> <p>Gauzak horrela, jarduera osagarriaren dataren aurretik, ikasle batek jokabide desegokiak izanez gero, irakasleak erabaki ahalko du, jarduera osagarriaren arabera, ikasle horrek jardueran parte hartu ahalko duen, edota ikastetxean bertan garatuko dituen konpetentzia horiek.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

Agenda 30 proiektua dela eta, elikagaiak eta dietak ikasteaz aztertuko dute nola eragiten duten elikagaien aldaketa klimatikoan. Horretarako herrialde desberdinetako dietak konparatu beharko dituzte. Bere bizimoduaren eta aldaketa klimatikoaren arteko erlazioaz hausnartu, elikagaien jatorria eta negutegi efektuko gasen arteko lotura ondorioztatu .